

Maskotak ekartzeko arauak

Txakur txikiak (20 kilo gehienez) **eta ondo hezituak** onartzen ditugu etxean.

Gehigarria 15€koa izango da (maskota/egun).

Txakurrak beti arduradun batekin egongo dira etxearen barruan.

Maskotarentzat ohea edo maindirea ekartzea ezinbestekoa da.

Maindireak, toallak, esku-oihalak, e.a. bakarrik etxean dauden pertsonentzat dira. Inolaz ere **ez abereentzat**.

Maskotaren arduradunak haren **gorozkiak jaso** behar ditu beti.

Maskota dagoen tokia behar bezala eta **maiz garbitu** behar da.

Etxean ez dago maskotentzako tresna edo gauzarik. Behar duzuen guztia ekar ezazue, mesedez.

Maskotaren arduradunak honek etxean eragin ditzakeen **kalteak ordainduko dituela onartzen du.**

Erreserba baieztatuz gero, bezeroak arauak onartzen dituela baieztatzen du.

Mila esker arauak betetzeagatik. Enekoizarren egonaldi atsegina opa dizuegu.

